

# 1. PROIEKTUAREN AZALPENA

Inuu Yimado, guk sortu dugun produktua, aplikazio bat da. Esan beharra dago aplikazio honen helburua ez dela irabaziak lortzea, Euskal Herrian, eta Donostialdean bereziki dauden etorkinek bizitza erraztea baizik. Hori dela eta izenburuak, “ongi etorri” esan nahi du. Atzerritarrak diren 2 hizkuntzen konbinazioa da hain zuzen ere.

Lehenik eta behin, argi utzi behar da aplikazioak nola funtzionatzen duen. App hau dohainikako da, hau da, edozein pertsonak mugikorrean deskargatu dezake. Bertan sartzera, plan ezberdinak ageri dira. Hots, etorkinek Euskal Herrian harrera egokia edukitzeko eta denbora librean lagunak ezagutzeko aukera areagotzen du. Hori dela eta, ekintza ezberdinetan parte hartu dezakete hitzartuta dagoen egunean; esaterako, mendi irteerak, herriko bazkariak edo futbol lehiaketetan besteak beste. Guk, zerbitzua eskaintzen dugunok, ekintzak antolatzeaz gain, beharrezkoak izango diren baliabideak prestatzen ditugu. Horrez gain, adibidez herri bazkaria egiteko produktuak edo lokalak uzteko prest egongo diren enprekin, kasu honetan tabernekin, harremanetan jartzen gara. Ez hori bakarrik, pertsona asko apuntatu ezker, taldeak egiteaz ere arduratzen gara.

Aipagarria da esatea, aplikazioan izen-eman duten etorkinek erabakiko dutela zein ekintzetan parte hartu. Hau da, gerta litzateke mendira joan nahi ez izatea baina euskal dantzak ikasi nahi izatea. Horregatik, hainbat plan eskaintzen ditugu hilabetero gustu ezberdineko jendeari zuzentzeko. Gainera, esan beharra dago, euskaldunok ere parte hartu dezaketela. Izan ere, 2 perfil mota daude: bertakoak eta kanpotarrak. Bertakoek ekintzetan parte hartu dezakete baita ere jendea ezagutzeaz gain etorkinei harrera errazagoa sorrarazteko.

Azkenik, aipatu behar da, aplikazioa sortu dugunok, bulego bat ere dugula edozein arazo konpontzen saiatzeko eta prozesu burokratikoak egiteko. Gainera, esan beharra dago, asteen behin, izen-eman dutenek euskarazko klase bat edukiko dutela (dohainik) hemen errazago egokitzeke.

Beraz, guk sortu dugun produktua zenbait planetan parte hartzeko aukera sortzen duen aplikazio bat da.